

 <p>AMOREBIETA- ETXANOKO UDALA P4800300H</p>	<p>IL0136</p>	<p>Gizarte ongizate fondoa</p>
---	----------------------	---------------------------------------

ZER DA? ZERTARAKO DA?

Aldizkako izaera duen prestazio ekonomikoa da, gizarte zerbitzuen osagarria, adin asko dutelako edo gaitasunik ez dutelako, lan mundura sartu ezin daitezkeen eta euren oinarritzko beharrei erantzuteko behar adina diru-sarrerarik ez daukaten pertsonentzat.

NORK ESKA DEZAKE?

Ongizarte Funtzaren Pentsioaren onuradunak izan daitezke eskakizun hauk betetzen dituzten pertsonak:

Euskadiko Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan errolatuta egotea (bizitzeko baimena duten atzeritarrak, errefuxiatuak eta herrialderik gabeak barne hartzen dira).

- 65 urte beteta izatea edo, gaixotasunen bat izanez gero, 16 baino gehiago izatea, urritasun maila bat aitortuta izatea eta edozein lan egiteko gai ez izatea.
- Oinarritzko beharrei erantzun ahal izateko diru-sarrerarik, norberarenak edo senideenak, ez izatea.

Diru-sarrerarik ez dagoela ulertzen da, norberaren onura eskusiborako, eta urte naturalaren barruan, pensio horren laguntzaren urteko zenbatekoa baino diru-sarrera txikiagoak izatea, errenta, ordainketa, pensio edo beste edozein diru-iturri kontuan izanda (eskatzailearen bizilekua den jabetzako etxebizitzaren balorazioa kanpo geratzen da).

Eskatzailea FAMILIA UNITATEA batean badago, untiare horren per capita errenta prestazio ekonomiko honen urteko zenbatekoa baino txikiagoa izango da.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- [E123 Gizarte ongizaterako funtseko pentsioaren eskaria](#)
- Eskatzailearen eta familia unitateko gainerako kideen (senar-emaztea, adingabeko edo lanerako gai ez diren adin nagusiko seme-alabak). nortasuna egiaztatzen duen agiria (NAN edo Bizileku Baimena indarrean)
- Errolda ziurtagiri kolektiboa (ofizioz erantsiko da)
- Familia liburua edo, horrelakorik egon ezean, zaintza edo tutoretza egiaztatzen duen agiria.
- Banaketa/dibortzio kasuan: banaketa/dibortzio epaia eta hitzarmen arautzailea
- Senar-emaztearen heriotzaren ziurtagiria, hala denean.
- Eskatzailearen diru-sareren ziurtagiria eta, hala denean, bizikidetzaren unitatea osatzen duten 16 urtetik gorakoena.

NON ESKATZEN DA?

Aurrez aurre:

- [Udaletxea](#)
Udaletxea
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO
Ordutegia: 7:30 - 15:00

Email bidez:

- haz@amorebieta.eus

Posta arrunta:

- Udaletxeko posta arrunta
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO

ZENBAT KOSTATZEN DA?

Kudeaketaren kostua Udalak hartuko du bere gain.

PROZEDURAREN EPEA

Prozedura arrunta. Legezko gehienezko epea: 3 hilabete
Isiltasun-administratiboaren izaera: Aurkakoa

ARAUDI APLIKAGARRIA

- [129/1986 Dekretua, maiatzaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Ongizateko Funtseko pentsioak arautzekoa.](#)
- [Otsailaren 23ko 38/1988 Dekretua, 129/1986 Dekretua zati batean aldatzen duena.](#)
- [Ekainaren 12ko 163/1990 Dekretua, adineko eta ezgaituentzat Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Ekintzako Funtsen Pentsioak arautzen dituen Dekretua zati batean aldatzen duena eta pentsio horien zenbatekoa igotzen duena.](#)
- [Urriaren 1eko 511/1991 Dekretua, adineko eta lanerako ezgaituentzat Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Ekintzako Funtsen pentsioak igotzen dituena.](#)

ESKAERA JASO ONDOREN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

1. Eskaria eta dokumentazioa jaso eta egiaztatu
2. Erregistratu, eskaneatu eta interesatuari kopia eman
3. Espedientea Bizkaiko Foru Aldundira bidali, ebazpenerako.

NORK ONARTU BEHAR DU?

Bizkaiko Foru Aldundia

IZAPIDETZEKO ARDURA DUEN UDAL SAILA

Gizarte ekintza - Gizarte Zerbitzuak

OHARRAK